

**ERABAKIA, 2016ko UZTAILAREN 5eko, UPV/EHUko IRAKASLE-
IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko
IRAKASLEEN ORDEZKOAK EGITEKO ZERRENDETAN KIDE GEHIAGO
SARTZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTU ETA EZ ONARTUEN BEHIN
BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEKO DENA.**

EGITEZKO AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2016ko ekainaren 2ko erabakiaren bidez, deialdi publikoa egin zen ordezkioak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko.

Bigarrena.- Aipaturiko lehiaketan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2016ko ekainaren 16an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri kasu honetan: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena); Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu-arloak eta egitura eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2013eko urtarrilaren 30 erabakia (2013eko otsailaren 13eko EHAA); 2011ko martxoaren 11ko UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen ebazpena, irakasleen ordezkioak egiteko izengaien zerrendak gestionatzeko arautegia onartzen dena (2011ko martxoaren 25eko EHAA); 2016ko ekainaren 2ko erabakia, deialdia egin zuena, eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorrak.

Bigarrena.- UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzeaz, erabaki hau emateko, Zuzendaritza Kontseiluaren egitura eta funtzionamendu-arloak eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiaren babesean.

Hirugarrena.- 2016ko ekainaren 2ko erabakiaren bidez deialdia egin zen ordezkioak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko. Erabaki horretan jasota dago eskariak aurkezteko epea amaiturik, Unibertsitateko Errektoreak onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda argitaratuko duela Deialdi eta Lehiaketa Atalean, campusetako errektoreordetzetan eta unibertsitateko webgunean, eta hori izango dela interesdunei jakinarazpena egiteko modua. Bestalde, zehaztuta dago 10 eguneko epea irekiko dela, zerrenda hori argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, errakuntzak zuzentzeko, bai eta zerrenda horren kontrako erreklamazioak aurkezteko ere.

Hori guztia kontuan hartuta, eta nire eskumenak erabiliz, honakoa:

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea ordezkioak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko lehiaketa publikoan onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda (2016ko ekainaren 2ko erabakiaren bidez deitu zen).

Bigarrena.- Erabaki hau argitaratzea Deialdi eta Lehiaketa Ataleko eta campusetako errektoreordetzeko iragarki-oholetan, eta unibertsitateko webgunean.

Hirugarrena.- Onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioak jartzeko edo zuzenketak egiteko epea 2016ko uztailaren 16an amaituko da (egun hori barne).

Leioan, 2016ko uztailaren 5ean.

ERREKTOREA

Izenpea eskuordetuta (errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakia, 13/02/13ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Izptua.: Xabier Etxaniz Erle